

739/2025 EBAZPENA, ekainaren 18koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Donostialdeko ESIko Anestesiologia eta Bizkorketako Osasun Ataleko burua (Bloke Kirurgikoaren Koordinazioa) hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK

Donostialdeko ESIko zuzendari gerentearen apirilaren 29ko 473/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Donostialdeko ESIko Anestesiologia eta Bizkorketako Osasun Ataleko burua (Bloke Kirurgikoaren Koordinazioa) izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa sistemaren bidez (2025eko maiatzaren 14ko EHAA 89 zk. eta 2025eko maiatzaren 22ko BOE 123 zk).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko ekainaren 12an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Donostialdeko ESIko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez.

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.— Donostialdeko ESIko Anestesiologia eta Bizkorketako Osasun Ataleko burua (Bloke Kirurgikoaren Koordinazioa) izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea (I. Eranskina).

Bigarrena.— Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Donostialdeko ESIko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Donostia, 2025eko ekainaren 18a.

Donostialdeko ESIko zuzendari gerentea.
EB (2266/2022 Ebazpena, abenduaren 13koa).

Langileen zuzendaria
MARIA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO.

Osakidetza
DONOSTIALDEA ESI
LANGILEEN ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAS



Osakidetza

DONOSTIALDEA
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
DONOSTIALDEA

I. ERANSKINA

DONOSTIALDEKO ESIKO ANESTESIOLOGIA ETA BIZKORKETAKO OSASUN ATALEKO BURUA (BLOKE KIRURGIKOAREN KOORDINAZIOA) IZENEKO LANPOSTUA

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Amaia Larrea Aseguinolaza.

Baztertuak:

- Inor ez.

Donostia, 2025eko ekainaren 18a.

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN BAIKA
DEPARTAMENTO DE SALUD